



I. ERANSKINA: Mugimendu dokumentua

Mugimendu dokumentua 2007ko ekainaren 13ko 28/2007 Errege Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen da. Bertan, abereen mugimenduaren erregistro orokorra eta abereak banaka identifikatzeko erregistro orokorra ezarri eta arautzen dira. Agiri horretan hau aipatzen da:

1. Abereen mugimendu guztiak lekualdatze dokumentu batekin babestuko dira. Dokumentu horretan VII. eranskinean ezartzen diren gutxieneko datuak azalduko dira eta animalien titularrak, jabeak edo agintari eskudunak behar den bezala bete behar du. Dokumentu hori animaliekin batera eramango da, ustiapen hartzailera iritsi arte.

Lekualdatze dokumentua edukitzeak ez du esan nahi indarrean dagoen legediaren eta mugimendu bakoitzaren ezaugarrien arabera lekualdatze hori egiteko behar diren baimenak eskuratu behar ez direnik, ezta ere baimen horiek eskuratuta daudenik.

2. 2003ko apirilaren 24ko 7/2003 Legearen 50. artikuluan ezarritako jatorrizko osasun ziurtagiriak nahiz agintari eskudunek baimendu eta animaliekin batera eraman beharreko beste edozein agiri baliagarriak izango dira mugimendu dokumentu gisa, betiere, 1. atalean ezarritako informazioa, gutxienez, baldin badute.

3. Agintari eskudunak mugimendu dokumentua ematen duenean lekualdaketa egin aurretik eta, agiria eman ondoren, salbuespeneko eta arrazoitutako gorabeherak direla eta, irteera datari, garraiolariari, garraiobideari edo animalia kopuruari buruzko datuak ez datozenean bat dokumentu eskaera betetzerakoan agintari eskudunari jakinarazi zitzaizkion datuekin, ustiapenaren titularrak aldaketen berri eman behar dio agiria egin duen agintari eskudunari bi eguneko epean, irteera egunetik kontatzen hasita. Kasu horretan, animalia kopuruak ezingo du gainditu hasieran eskatutakoa.

Gainera, aldaketa horiek adierazi behar dira, ustiapenaren titularraren ardurapean, mugimenduarena ez den beste dokumentu batean, animaliekin batera eraman beharrekoan, ustiapen hartzailera iritsi arte.

Data ezingo da inolaz ere aldatu jatorrizko osasun ziurtagiriak baimendutako epetik kanpo. Banaka identifikatutako animalien kasuan, osasun ziurtagirian ezingo da aldatu mugimendu horretako baimendutako animalia.



4. Autonomia erkidego baten barruan egindako mugimenduak ez dira derrigorrez mugimendu dokumentuan adierazi behar, betiere, berme bereko sistema bat erabiltzen bada, hori ezartzen baitu animalien osasunari buruzko 2003ko apirilaren 24ko 8/2003 Legeak 50.3 artikuluan.

5. Mugimendua egin behar duen jatorrizko ustiapenaren titularrak edo animalien jabeak mugimendu dokumentu bakoitzaren kopia bat emango dio garraiolariari, eta jatorrizkoa, berriz, ustiapen hartzailearen titularrari edo animalien jabe berriari aurkeztuko dio.

6. Jatorrizko ustiapenaren eta ustiapen hartzailearen titularrek edo animalien jabeek mugimendu dokumentuaren kopia gorde beharko dute gutxienez hiru urtetan, animaliak mugitu ziren egunetik hasita.